# 3.8.3. UDAL-ALORRAK. GIZARTE-EKINTZA. GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Urtero, kontu-sail bat bideratzen da Garapenaren aldeko Lankidetzaren Udal Programara, eta 2017an, 1.417.910 eurokoa izan zen, hau da, Iruñeko Udalaren aurrekontu guztiaren % 0,72. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, hiriko auzokide bakoitzeko, 7,19 €-ko ekarpena egin da urtean .

Programa horren barruan, diru-laguntzetarako bost deialdi izan dira 2017an, Iruñean finkatuak dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeei (GGKE) laguntza emateko. Bi deialdi Iruñean garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza--proiektuak egiteko dira; beste bi, beste herrialde batzuetan garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza-proiektuak egiteko, eta bosgarrena, berriz, giza larrialdietarako jarduketetara bideratua dago. Lankidetza-hitzarmen bat ere garatu da Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, arlo horretako Informazio eta Koordinazio Bulegoa sortzeko, eta gure erkidegoko beste toki-erakunde batzuekin batera parte hartzen dugu Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) kudeatzen duen Lankidetzarako Tokiko Funtsean.

| LAN-ILDOA | KOP. | 2017ko betetze-maila | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|---|
| **SENTSIBILIZAZIOA** | **20** | **139.600** | **9,9 % / 10,7%** |
| - Diru-laguntzetarako deialdia: Unean uneko jarduketak | 3 | 3.600 | 0,3% |
| - Diru-laguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak | 16 | 100.000 | 7,7% |
| - Lankidetza-hitzarmena: Argibide eta Koordinazio Bulegoa | 1 | 36.000 | 2,8% |
| **TOKIKO GARAPENA** | **40** | **1.049.125** | **74,1% / 80,7%** |
| - Diru-laguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak | 32 | 887.125 | 68,2% |
| - Diru-laguntzetarako deialdia, Hegoaldeko toki-entitateentzat | 2 | 120.000 | 9,2% |
| - Garapenaren aldeko Lankidetzarako Tokiko Funtsa (NUKF) | 6 | 42.000 | 3,2% |
| **GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA** | **8** | **96.000** | **6,9% / 7,4%** |
| - Diru-laguntzetarako deialdia: Giza Larrialdia | 8 | 96.000 | 7,4% |
| **GLUP-AREN BEREZKO JARDUERAK** | **1** | **15.461** | **1,1 %/ 1,2%** |
| - Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea | 1 | 15.125 | 1,2% |
| - 2016ko Memoria egitea | | 336 | 0,03% |
| **GLUP-AREN JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA** | **69** | **1.300.186** | **91,8% / 100%** |
| **GLUP-AREN JARDUNAREN GUZTIZKO PARTZIALA** | | **116.060** | **8,2%** |
| **GUZTIRA GAUZATUA** | | **1.416.246** | **100%** |

Iruñeko biztanleen kopurua, 2017ko urtarrilaren 1ean: 197.138 [INE, 2017ko urtarrilaren 1ean]

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako udal-funtsak nora bideratu diren, eremu geografikoa zein jarduera-sektorea aintzat hartuta, honako taula hauetan azalduta dago:

## FINANTZAKETAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA

| Geografia-esparrua | € | % | Geografia-esparrua | € | % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hego Amerika** | **174.176** | | **Afrika** | **532.438** | **41,0%** |
| Argentina | 28.018 | | Burkina Faso | 7.000 | |
| Kolonbia | 106.163 | | Txad | 72.344 | |
| Peru | 39.995 | | Boli Kosta | 25.347 | |
| **Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe** | **351.760** | | Ginea Bissau | 7.000 | |
| Kuba | 12.000 | | Kenya | 12.000 | |
| El Salvador | 93.461 | | Mali | 26.877 | |
| Guatemala | 32.772 | | Maroko | 24.295 | |
| Haiti | **108.408** | | Mozambike | 90.345 | |
| Mexiko | 25.690 | | Niger | 65.345 | |
| Nikaragua | **79.429** | | Errefuxiatu sahararrak | 81.596 | |
| **Ekialde Ertaina** | **37.690** | **2,9%** | Kongoko Errepublika Demokratikoa | 30.345 | |
| Jordania | **12.000** | | Rwanda | 30.944 | |
| Palestinako Lurralde Okupatuak | **25.690** | | Sierra Leona | 12.000 | |
| **Asia** | **49.061** | **3,8%** | Tanzania | 12.000 | |
| India | **23.371** | | Uganda | 35.000 | |
| Pakistan | **25.690** | | **Europa** | **155.061** | **11,9%** |
| | | | Iruña (Sentsibilizazioa) | 155.061 | |

**Guztira: 1.300.186 euro**

## FINANTZAKETAREN BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

| SEKTOREA | IZENA | Nº | € | % |
|---|---|---|---|---|
| **100** | **GIZARTE-AZPIEGITURAK ETA LOTURIKO ZERBITZUAK** | **33** | **850.876** | **65,4%** |
| 110 | Hezkuntza (oinarrizkoa, bigarren mailakoa, lanbide-heziketa, etab.) | 3 | 93.362 | |
| 120 | Osasuna (lehen laguntza, espezializatua, etab.) | 8 | 182.159 | |
| 130 | Biztanleriari eta ugalketa-osasunari buruzko programak eta politikak | 1 | 26.877 | |
| 140 | Ur-hornidura, saneamendua eta hondakin solidoen tratamendua | 12 | 270.843 | |
| 150 | Gobernua eta gizarte zibila (giza eskubideak: sustapena-salaketa, kooperatibak, etab.). | 7 | 236.114 | |
| 160 | Bestelako gizarte-zerbitzuak eta -azpiegiturak (enplegua, etxebizitza...) | 2 | 41.521 | |
| **200** | **AZPIEGITURA EKONOMIKOA ETA ZERBITZUAK** | **1** | **22.578** | **1,7%** |
| 210 | Garraioa eta biltegiratzea | 1 | 22.578 | |
| **300** | **EKOIZPEN-SEKTOREAK** | **3** | **88.732** | **6,8%** |
| 311 | Nekazaritza | 3 | 88.732 | |
| **400** | **SEKTORE ASKOTAKOA** | **2** | **62.995** | **4,8%** |
| 430 | Sektore askotako beste zenbait | 2 | 62.995 | |
| **500** | **LAGUNTZA ONDASUN-HORNIDURETAN ETA LAGUNTZARAKO PROGRAMA OROKORRAK** | **1** | **23.944** | **1,8%** |
| 520 | Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura-segurtasuna | 1 | 23.944 | |
| **700** | **LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA** | **8** | **96.000** | **7,4%** |
| 720 | Bestelako laguntzak larrialdi-egoeran eta hondamendietan | 6 | 72.000 | |
| 730 | Laguntza berreraikitze-lanetarako | 2 | 24.000 | |
| **998** | **GARAPENAREN ALDEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA** | **21** | **155.061** | **11,9%** |
| 99820 | Garapenarekiko sentsibilizazioa sustatzea | 4 | 58.881 | |
| 99821 | Balioetan heztea | 3 | 15.473 | |
| 99823 | Bidezko Merkataritza eta Ekonomia Solidarioa | 3 | 15.561 | |
| 99824 | Iparraldea-Hegoaldea egoera | 11 | 65.146 | |
| | **GUZTIRA** | **69** | **1.300.186** | **100%** |

Jarduera-sektoreak hartu dira ELGEko Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) ezarritako sailkapenetik.

## GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN PLAN ZUZENTZAILE BERRIA 2018 -2021

GLUParen berrikuntza nagusia 2017. urtean Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea (2018–2021) egin izana izan da, hura baita hurrengo lau urteetarako laneko estrategia-tresna, betiere azken xedetzat harturik garapenaren aldeko udal-politika sendoagoa eta hobea egitea.

Amaierako emaitza 6 ildotan eta 31 helburu estrategikotan egituratutako Plan Zuzentzailea da.

| Plan Zuzentzailearen egitura | Estrategia-ildoak |
|---|---|
| **6 ildo eta 31 helburu estrategiko** | 1º Hegoaldeko ekintzak orain baino jasangarritasun handiagokoak eta koherenteagoak izan daitezen ahalegintzea, eta enfasia jartzea tokian tokiko lanean eta eskubideen ikuspegian. |
| | 2º Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa indartzea, GLUParen estrategia nagusi gisa. |
| | 3º GLUPak babesten dituen ekintzen kalitatea handitzea eta GGKEak indartzea, eragile funtsezko diren aldetik. |
| | 4º Sendoago egitea GLUPak beste erakunde eta ekimen batzuekin duen koordinazioa eta elkarrekiko osagarritasuna. |
| | 5º GLUParen gaineko ezagutza eta gardentasuna handitzea herritarren artean eta Iruñeko Udaleko beste alor batzuetan. |
| | 6º GLUKa aktibatzea, Iruñeko lankidetzako eragile nagusiek eztabaidatzeko eta informazioa trukatzeko funtsezko foro gisa. |

Plana Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluak berretsi zuen 2017ko abenduaren 14an egindako bileran. Ondoren, Gobernu Taldeari aurkeztu zitzaion (TGB): 2018ko otsailaren 20ko TGB, eta aho batez onartu zen Udalaren Osoko Bilkuran, 2018ko martxoaren 1eko bilkuran: 2018/03/01eko Osoko Bilkura (4AS).




